

UDALAK 2011ko ABUZTUAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregui and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Maria Otaegi Velez and.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2011ko abuztuaren 30ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria

KONTU-HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTAK ONARTZEA: 2011-06-17 ETA 2011-08-17. - 2011ko ekainaren 17an eta 2011ko abuztuaren 17an egindako bileraren akta onartu da.

2.- "ERABATEKO DEDIKAZIOKO ETA DEDIKAZIO PARTZIALEKO KARGUEN IZENDAPENA ETA ORDAINSARIAK" AKORDIOA, 2011KO EKAINAREN 17KOA, ZUZENTZEA. - 2011ko ekainaren 17ko bilkuran, 12. puntuan "Erabateko dedikazioko eta dedikazio partzialeko karguen izendapena eta ordainsariak", 2011ko ekainaren 15eko data zuten bi dekretu bozkatu ziren.

2011ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 11.artikuluak jasotzen duenez, alkateak du eskumena erabateko dedikazioko eta dedikazio partzialeko karguak izendatzeko, talde politikoek proposatuta

Idazkariak dioenez, Dekretu horien berri eman behar zen Osoko Bilkuran eta ez bozketagai jarri, alkatearen eskumena baita kargu horien izendapena.

Barrio jaunaren (H1!) abstentzioarekin, erabakitzen da:

Hori horrela, 2011ko ekainaren 17ko akordioa zuzentzea proposatzen da:

- Lehen dekretua, alkatearen izendapenarena, ezabatzea, bilkura bereko 5.-D puntuan eman baitzen horren berri, aktan jasota dagoen moduan.
- Botazioa ezabatzea eta haren lekuan honako esaldi hau gehitzea: "Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da".

3.- 2011KO EKAINAREN 15ETIK 2011KO ABUZTUAREN 25ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko ekainaren 15etik 2011ko abuztuaren 25era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

4.- ZERBITZU PUBLIKOEN ARLOKO FUNTZIOEN DELEGAZIOARI BURUZ ALKATETZAK HARTU DUEN ERABAKIAREN BERRI EMATEA. - Alkatearen ondorengo ebazpenaren berri ematen da:

"DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako ekainaren hogeitazortzian.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT

1.- Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA:**

* Asier San Emeterio Otegui jn. (BILDU): - **ZERBITZU PUBLIKOAK.**

2.- Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.

- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.
 - Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
 - Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
 - Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeke eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
 - Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagokio.
 - Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau hausteak zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.
 - Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekursoak ebaztea.
 - Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.
- 3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.
 - 4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.
 - 5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.
 - 6.- Kanpoan 24 orduetik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.
 - 7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.
 - 8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
 - 9.- Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
 - 10.- Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.
 - 11.- Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.
 - 12.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

13.- Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.

14.- Ebazpen hau irmoa da administrazio bidean. Honen kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horiez gain, bidezkozat jotzen den beste edozein errekurtsio ere jar daiteke.”

5.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 10/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2011ko abuztuaren 23an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **10/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezkoa. Kopurua: **10.384 euro**.

6.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 11/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2011ko abuztuaren 24an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **11/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezkoa. Kopurua: **16.000 euro**.

7.- 2011KO EKAINAREN 17KO AKORDIOAREN 7. PUNTUA, “BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA” IZENEKOA, ALDATZEA. - Alkate-lehendakari jaunak irizpenaren bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (BILDU).

- Aurkako botoak: Bat ere ez.

- Abstentzioak: 4 (3 EAJ-PNV eta 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

“2011ko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran Batzorde Informatzaileen izenak eta eskumenak onartu ziren. Akordio hari hainbat aldaketa egitea erabakitzen da:

* Turismo arloaren eskumena Kulturako Batzor-deak hartuko du. Ondorioz, atera egingo da “Zerbitzu Publikoak, Merkataritza eta Turismoa” izeneko Batzordetik.

* “Hezkuntza Batzordea” zena “Hezkuntza eta Enplegu Batzordea” izango da.

8.- INFORMAZIO BATZORDEETAKO KIDEEEN IZENDAPENAREN BERRI EMATEA. - Informazio Batzordeetako kideen izendapenaren berri ematen da:

“Ogasun eta Ondarea – Kontuetarako Batzorde Berezia / Hacienda y Patrimonio – Comisión Especial de Cuentas

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Nahiara Sanchiz Arregui Asier San Emeterio Otegui Aitor Miner Aginaga	Iker Goenaga Gubia Idurre Conde Santa Cruz Gloria Mendinueta Yeregui Beñat Amenabar Perurena
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Ramón Chica Ramírez	Estefania Morcillo Cerdán
EAJ-PNV	María Otaegi Vélez	Jose Antonio Cuesta Solé
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Zerbitzu Publiko eta Merkataritza / Servicios Públicos y Comercio

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Asier San Emeterio Otegui Idurre Conde Santa Cruz Aitor Miner Aginaga	Iker Goenaga Gubia Beñat Amenabar Perurena Nahiara Sanchiz Arregui Kistiñe Lujanbio Galdeano
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Pérez Domínguez	José Ramón Chica Ramírez
EAJ-PNV	Andoni Amonarraiz Gómez	Jose Antonio Cuesta Solé
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Hirigintza eta Ingurumena / Urbanismo y Medio Ambiente

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Kistiñe Lujanbio Galdeano Asier San Emeterio Otegui Beñat Amenabar Perurena	Iker Goenaga Gubia Gloria Mendinueta Yeregui Aitor Miner Aginaga Idurre Conde Santa Cruz
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Ramón Chica Ramírez	Estefania Morcillo Cerdán
EAJ-PNV	José Antonio Cuesta Solé	María Otaegi Vélez
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Pertsonala / Personal

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Idurre Conde Santa Cruz Asier San Emeterio Otegui Gloria Mendinueta Yeregui	Iker Goenaga Gubia Nahiara Sanchiz Arregui Beñat Amenabar Perurena Kistiñe Lujanbio Galdeano
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Ramón Chica Ramírez	José Pérez Domínguez
EAJ-PNV	Andoni Amonarraiz Gómez	María Otaegi Vélez
H1!	Iñaki Barrio Sagastume	Iñaki Arratibel Olaziregi

Euskara / Euskara

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Nahiara Sanchiz Arregui Iker Goenaga Gubia Gloria Mendinueta Yeregui	Kistiñe Lujanbio Galdeano Idurre Conde Santa Cruz Aitor Miner Aginaga Beñat Amenabar Perurena
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	Estefania Morcillo Cerdán	José Ramón Chica Ramírez
EAJ-PNV	María Otaegi Vélez	Andoni Amonarraiz Gómez
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Politika Sozial / Política Social

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Iker Goenaga Gubia Gloria Mendinueta Yeregui Idurre Conde Santa Cruz Nahiara Sanchiz Arregui	Aitor Miner Aginaga Kistiñe Lujanbio Galdeano Asier San Emeterio Otegui Beñat Amenabar Perurena
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Pérez Domínguez	Estefanía Morcillo Cerdán
EAJ-PNV	María Otaegi Vélez	Andoni Amonarraiz Gómez
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Kultura eta Turismoa / Cultura y Turismo

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Nahiara Sanchiz Arregui Gloria Mendinueta Yeregui Iker Goenaga Gubia	Idurre Conde Santa Cruz Aitor Miner Aginaga Kistiñe Lujanbio Galdeano Asier San Emeterio Otegui
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	Estefanía Morcillo Cerdán	Jose Ramón Chica Ramírez
EAJ-PNV	José Antonio Cuesta Solé	María Otaegi Vélez
EA	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Hernani Parte Hartzea / Hernani Participación

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Kistiñe Lujanbio Galdeano Asier San Emeterio Otegui Idurre Conde Santa Cruz	Iker Goenaga Gubia Gloria Mendinueta Yeregui Beñat Amenabar Perurena Nahiara Sanchiz Arregui
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	Estefanía Morcillo Cerdán	José Pérez Domínguez
EAJ-PNV	Andoni Amonarraiz Gómez	Jose Antonio Cuesta Solé

H1!	Iñaki Barrio Sagastume	Iñaki Arratibel Olaziregi
-----	------------------------	---------------------------

Giza Eskubideak / Derechos Humanos

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Luis Intxauspe Arozamena Gloria Mendinueta Yeregui Beñat Amenabar Perurena Kistiñe Lujanbio Galdeano	Asier San Emeterio Otegui Idurre Conde Santa Cruz Aitor Miner Aginaga Nahiara Sanchiz Arregui
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	Estefanía Morcillo Cerdán	José Ramón Chica Ramírez
EAJ-PNV	Andoni Amonarraiz Gómez	Jose Antonio Cuesta Solé
H1!	Iñaki Arratibel Olaziregi	Iñaki Barrio Sagastume

Hezkuntza eta Enplegua / Educación y Empleo

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Kistiñe Lujanbio Galdeano Beñat Amenabar Perurena Asier San Emeterio Otegui Idurre Conde Santa Cruz	Gloria Mendinueta Yeregui Aitor Miner Aginaga Nahiara Sanchiz Arregui Iker Goenaga Gubia
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Ramón Chica Ramírez	José Pérez Domínguez
EAJ-PNV	María Otaegi Vélez	Andoni Amonarraiz Gómez
H1!	Iñaki Barrio Sagastume	Iñaki Arratibel Olaziregi

Kirolak / Deportes

	TITULARRA - TITULAR	ORDEZKOA-SUPLENTE
BILDU	Beñat Amenabar Perurena Iker Goenaga Gubia Aitor Miner Aginaga Idurre Conde Santa Cruz	Asier San Emeterio Otegui Kistiñe Lujanbio Galdeano Gloria Mendinueta Yeregui Nahiara Sanchiz Arregui
Euskal Sozialistak Socialistas Vascos	José Pérez Domínguez	Estefanía Morcillo Cerdán
EAJ-PNV	José Antonio Cuesta Solé	Andoni Amonarraiz Gómez
H1!	Iñaki Barrio Sagastume	Iñaki Arratibel Olaziregi

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK. - Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Bildu Udal Taldeak zer pauso emango dituen animalia-kakak direla eta.

Udal berria osatuta, Epaitegiak jakinarazpena bidali du adieraziz txakur-jabe batzuek txakur-kaken araudiari buruzko errekurtsioa jarri dutela, eta, araudiaren aplikazioan kautelazko etenaldia egiteko eskaera egin du..

Etenaldi-eskaera hori kontuan hartzea erabaki dugu, eta hainbat bilera egin ditugu errekurtsua jarri duten pertsonekin, abokatuarekin eta albaitariekkin.

Arazo liskartsua dela kontuan hartuta, prozesu parte hartzaile bati ekiteko erabakia hartu dugu. Deialdi publikoa egingo dugu, beraz, irekia, interesa duen edonork parte har dezan, nor bere iritzia eman, kezak, iradokizunak, alternatibak etab. planteatzeko. Adostasunean hartu nahi ditugu erabakiak, ahal bada, eta, akordioaren hartu beharko balitz, Osoko Bilkurara eramango dugu onartzerako.

Amonarraiz jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du zuzena iruditzen zaiola alkateak planteatutakoa, baina nahiago izango zuela gaia hasiera-hasieratik ezagutzea, bere taldea araudi horren kontra egon delako beti.

Deialdi publikoari dagokionez, gainerako talde politikoei ere deialdia zabaltzeko eskatu du, eta dagokion Batzordean lantzeko gaia.

Alkateak erantzun du baietz, ados dagoela eta Batzordean eztabaidatuko dela, baina aurrez prozesu parte hartzailea eginda.

Barrio jaunak (H1 !) hartu du hitza eta adierazi du prozesu parte hartzaileak irauten duen bitartean, zaintza neurriren bat hartu beharko litzatekeela, pertsonaren bat kontratatuta, adibidez, txakur-kakak kontrolatzeko, kaleak zerrikerriaz josita daudelako; edota gutxienez adierazi egin beharko litzaikeela jendeari txakur-kakak non utzi behar dituen.

Amonarraiz jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta, Barrioren ildotik, adierazi du, Villa Marian, behintzat, zakarrontzi bat jarri beharko litzatekeela eta hura erabiltzeko argibideak. Parkeko gunek ere egokitu ahal izango litzatekeela dio, txakurrak libre ibil daitezkeen.

Alkate jaunak (Bildu) eman dio amaiera gaiari eta adierazi du iradokizunak jaso dituela eta prozesu parte hartzailean txertatu behar direla, denen artean ahalik eta akordiorik zabalena lortu ahal izateko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:10 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.